III. ERANSKINA

HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEA EMATEKO)

LAGUNTZA MODALITATEA	TEKNOLOGOENTZAKO PRESTAKUNTZA
PROIEKTUAREN KODEA	T4
TITULUA	Basa-faunaren eta etxeko espezieen arteko interfazean patogenoak transmititzea, hegaztien influenzari arreta berezia jarriaz.
ZENTROA	NEIKER - NEKAZAL IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA - Derioko zentroa (BIZKAIA)
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	Animalia zientzia
IKERKETA - TALDEA	Basa-fauna eta One Health
PROIEKTUKO TUTOREA(K)	Marta Barral
PROIEKTUAREN LABURPENA	Proiektuak, interesekoak diren gaixotasun zoonotikoen epidemiologia aztertzea du helburu, etxeko abere eta animalia basatien arteko interfazean. Fauna basatiaren gaixotasunen zaintza planen ezarpena, interes epidemiologikoa duten gaixotasun batzuen azterketarako tresna egokienetako bat da. Adibide argi bat, patogenotasun handiko hegazti-gripearena da, hegazti-ekoizpeneko gaixotasun garrantzitsuenetako bat da, sektorean galera handiak eragiten baititu. Gaur egun zirkulatzen ari den H5N1 azpimotak pertsonei eta beste ugaztun batzuei ere eragin diezaieke. Azken urteotan Europan etxeko hegaztietan detektatutako agerraldiak, gehienbat, kutsatutako espezie basatiek birusa sartzearekin lotu izan dira; izan ere, espezie horiek, beren joan-etorrietan edo migrazioen bitartez, patogenoak eremu berrietara eramaten dituzte. Horregatik, garrantzi handia du fauna basatian birusaren prebalentzia zein den jakitea, baita beste patogeno batzuena ere, hala nola espezie basati eta bertako ekoizpen-sistemetako animalien arteko elkarrekintzak monitorizatzea. Gainera, espezie basatien mikrobiomari buruzko ezagutza areagotzea ere oso garrantzitsua da, patogenoak etxeko espezieetara edo pertsonengana transmititzeko duten potentziala ebaluatu ahal izateko.
BESTELAKO INFORMAZIOA	Unibertsitate-titulazioak honako hauek dira: Albaitaritza, zientzia biologikoak, biokimika, bioteknologia eta biozientziekin lotutako beste diziplina batzuk
HARREMANETARAKO DATUAK	mbarral@neiker.eus